

## 7 UDAL ADMINISTRAZIOA

### IBARRAKO UDALA

#### **Larrialdietako etxebizitzaren erregelamendua. Behin betiko onespina.**

---

### IBARRAKO UDALA

#### Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, 2007ko maiatzaren 23an udalbatzarrak egindako ohiko osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez Ibarako larrialdietako etxebizitza arautzen duen udal Erregelamendua onetsi zen. Jarraian araudiaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2007ko uztailaren 25a.—Consuelo Romeo Aya, Alkatea.

(1271) (8814)

### LARRIALDIKO HARRERA ZERBITZUEN ARAUDIA

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Araudi honek egoera kritikoei erantzun nahi dien larrialdiko harrera zerbitzu aldi baterakoa arautzea du helburu. Bi zerbitzu mota bereiz daitezke: Gizarte Larrialdiko etxebizitzak eta Tratu Txarrak jasotzen dituzten Emakumeei berehala Kasu Egiteko babespeko bizitokiak.

Zerbitzua arautu beharrak bi iturburu ditu: Larrialdiko etxebizitzaren gestioan azken urteotan antzeman diren zailtasunei erantzuna emateko asmoa, batetik, eta, bestetik, larrialdi arloko udal jardunari buruzko beste araudi batzuk agertu izana, batez ere genero indarkeriaren arlokoak.

Zailtasunen artean, joera hau nabarmendu dezakegu: Larrialdi egoera bati aldi baterako erantzuna emateko okupatutako etxebizitzak, azkenean, askoz ere denbora gehiagoz erabili ohi dituzte ohiko bizitoki moduan bertan hartutako pertsonak. Zergatik gertatzen da hori? Batez ere, zailtasun ekonomiko handiak dituzten pertsonak oso zaila dutelako etxebizitza bat lortzea, baina, baita ere, araudi berezirik ez dagoenez, aplikatu beharreko arauak arlo zibilekoak direlako. Horrek ez du ahalbideratzen arin gestionatzea zalantzarik gabe gizarte bitartekotzat jo behar den zerbitzu hau. Kontuan hartu behar da, beraz, etxebizitza horien erabilera zerbitzu publiko bat emateari atxikia dagoela eta, hortaz, Herri Administrazioen zerbitzu emateari buruzko arauak bete behar ditu.

Urriaren 18ko 5/1996 Legeak, Gizarte Zerbitzuenak, agintzen duenez, zerbitzu publiko hori ematea udalen eskumena da. Izan ere, honakoa dio 12.2 artikuluan: «20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztietan [...] larrialdiko harrera zerbitzuak izango dira, bizitoki faltak nahiz bizikidetzako arazo larriek eragindako egoera kritikoei erantzuna emateko...». Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuen arloko eginkizunak zehaztekoak, honakoa dio 4.2.1.2 artikuluan, udalen eginkizunez ari dela: «larrialdiko harrera zerbitzuen eginkizuna beharra duten pertsonen aldi baterako bizitokia ematea da...», eta honela jarraitzen du 4.2.1.3 artikuluan: «larrialdiko harrera zerbitzua emateko modua hauetako bat edo bat baino gehiago izan daitezke, nahiz eta horrek ez duen esan nahi bizitokia emateko beste modu batzuk ezin direnik

ezarri:

a) Udalerriko hotelekin itundutako plazak.

b) Harrera etxebizitzak: Etxerik ez izatea pertsonen segurtasun fisiko eta emoziozkoa arriskuan jartzen duten famili istilu larriekin lotuta dagoenean erabiltzen dira; etxebizitza horien kokalekua isilpean gorde behar izaten da.

c) Aterpetxeak: Etxe finkorik ez duten pertsonentzat dira».

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### I. KAPITULUA. SARRERA

##### 1. artikulua. Xedea.

Araudi honek egoera kritikoei erantzun nahi dien larrialdiko harrera zerbitzu aldi baterakoa arautzea du helburu. Bi zerbitzu mota bereiz daitezke: Gizarte Larrialdiko etxebizitzak eta Tratu Txarrak jasotzen dituzten Emakumeei berehala Kasu Egiteko babespeko bizitokia (aurrerantzean KEZ).

#### II. KAPITULUA. ONURADUNAK

##### 2. artikulua. Zein izan daitezkeen onuradun: Betekizun orokorrak.

1. Ibarren erroldatutako edozein pertsonak nahiz bizikidetzaren unitatek erabil dezake harrera zerbitzua, Gizarte Larrialdiko Etxebizitzaren edo KEZaren bidez, baldin eta 13 eta 18. artikuluetan azaltzen diren egoeretakoa batean badago. Lehentasuna izango dute udalerrian erroldatutakoek larrialdi etxebizitzan sartzeko garaian.

2. Beste udalerririk batzuetako pertsonak ere hartu ahal izango dira bizitoki horietan, baldin eta eskatzailea erroldatuta dagoen udalerriko udalak edo erakunde eskudunak hala eskatzen badu eta plaza librean baldin badaude, Ibarren erroldaturikoek lehentasuna izango baitute.

3. kasu hauetan jatorriko udalak edo eskumeneko erakundeak tasa ordaintzeaz gain, adierazi beharko du zergatik nahi duen Ibarren plaza hartu. Dena den, kasu hauetan kontuan izango da eskumeneko erakundeak edo udalak badituela baliabide propioak behar hauei erantzuteko eta Ibarren udalak, balizko erabilera izango lukeen elkarrekotasuna.

4. Salbuespen gisa, erroldatuta ez dauden pertsonak ere jaso ahal izango dituzte zerbitzuok, beren udalak eskaera egin ez arren, baldin eta salbuespenezko arrazoiak direla-eta beharrezko jotzen bada.

##### 3. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

###### 3.1. Eskubideak:

Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoak, II. Kapituluako Lehen Atalean ezarritakoaz gain, aldi baterako larrialdiko harrera zerbitzuen erabiltzaileek, larrialdiko etxebizitzetan nahiz KEZan –beren eskaeraren oinarri diren egoeren arabera–, EAEko hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea izango dute, bai eta zerbitzua hizkuntza horretan jasotzekoa ere.

###### 3.2. Betebeharrak:

Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoak, II. Kapituluko Bigarren Atalean ezarritakoaz gain, araudi honetan erregulatutako zerbitzuen erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Zerbitzu hauek erabili behar izatera eraman duen egoera aldatzeko egoki jotako gestio administratiboak, judizialak nahiz bestelakoak egitea. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak egoki iritziz gero, neurri horiek harrera-dokumentuan nahiz, dokumentu horri erantsita, haren osagaia izango den beste dokumentu batean jaso ahal izango dira.
- b) Ibarako Udalaren baimena ez duten pertsonen ez uztea zerbitzua baliatzen, haiekin duten ahaidetasun edo harreman mota gorabehera.
- c) Eraikinaren osagai komunak arretaz, kontuz eta artaz erabiltzea, hala nola, eskailera, ataria eta, oro har, zerbitzua baliatu eta gozatzeko balio duen guztia.
- d) Beste pertsona batzuekin bizitzeko bete beharreko jokabide arauak errespetatzea, bizikidetzak behar duen ordena asaldatu gabe eta gainontzeko erabiltzaileen nahiz bizilagunen sosegua hausten duen ezer egin gabe.
- e) Bizilagunen erkidegoaren bizitza erregulatzen duten arauak betetzea, are eskailerak garbitzearena ere, erkidegoak finkatutako zati edota txandetan. Konpromiso ekonomikoei buruzko arauak, berriz, ez dituzte bete behar.
- f) Baimenik izan gabe, ez sartzeko zerbitzuan ez altzaririk ez etxeko tresnarik. Norberaren erabilerarako behar direnak baino ezin izango dira sartu.
- g) Ez sartzeko zerbitzuan animaliarik eta ez gordetzea material antihigieniko edota arriskutsurik. Berariaz debekatuta dago armak edukitzea.
- h) Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako langileei edo horiek baimendutako beste pertsonen etxebizitzara sartzen uztea.
- i) Ez egitea etxebizitzan irabazi xedea duen inolako jarduerarik.
- j) Zerbitzuko giltzak ez kopiatzea, ez eta inori uztea ere. Egonaldia amaituta, giltzak Udaletxean utzi behar dira, zerbitzua amaitzen den egunean bertan.
- k) Zerbitzuaren helbidea inori ez jakinaraztea.
- l) Hainbat bizikidetzat unitatetako pertsonen partekatzen badute zerbitzua, elkarrekin bizitzeko arauak bete behar dira, garbiketa dela, higiena dela, ordutegiak direla Nor bere seme-alabez arduratuko da, bai eta bere gela eta objektu pertsonalak txukun eta garbi edukitzeaz ere. Etxeko lanei eta osagai komunei dagokienez (korridorea, atondoa, sukaldea, bainua, balkoiak, e.a.), akordio batera iritsi behar dute eta, gero, errespetatu eta bete.
- m) Onuradunak ados jartzen ez badira edo haien artean auzirik sortzen bada, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako langileek edo, halakorik bada, kontratatutako enpresakoek egoera aztertu eta erabaki egokiak hartuko dituzte. Erabaki horiek onartu eta bete beharrekoak izango dira.
- n) Etxebizitza erabiltzen duten pertsonen pentsamendu, iritzi eta ideologi askatasuna errespetatzea. Nork bere iritzia azaltzeko eskubidea izango du.
- o) Etxebizitza uztea horretarako epea amaitzen denean edo Udaleko Gizarte Zerbitzuetakoek eskatzen dutenean.

### III. KAPITULUA. SARTZEKO JARDUNBIDEA

#### 4. artikulua. Ohiko jardunbidea.

1. Jardunbidea abiatzeko, interesdunak inprimaki normalizatua bete beharko du eta Ibarrako Udaleko organo eskudunari zuzendu, eskatzaileak edo bere legezko ordezkariak izenpetuta. Inprimakia Udalak horretarako dituen sarrera erregistroetako batean aurkeztu beharko du.

2. Interesdunak uko egin diezaioke eskabideari, prozesuko edozein unetan. Hori idatziz egin beharko du. Hala gertatzen bada, espedientea artxibatu egingo da.

3. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako teknikariek bideratu eta baloratuko dute eskabidea. Txosten bat egin beharko dute, nahitaez, honakoak biltzen dituena:

— Hartu beharreko pertsona identifikatzeko datuak.

— Eskatzailearekin bizi ohi diren pertsonak identifikatzeko datuak.

— Hartzeko arrazoiak.

— Hartutako pertsonen egoera ekonomikoa.

— Harrera zerbitzua eman behar zaion baloratzea eta, baietz iritziz gero, zenbat denborarako eman proposatzea.

— Udalak intereseko jotzen duen beste edozein agiri.

4. Txosten hori eta bertan jasotakoa egiaztatzeko beharrezko dokumentu guztiak espedientearen osagai izango dira. Zenbat plaza libre dauden kontuan hartuta eta ondoren azaldutako lehentasun hurrenkerari jarraiki, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

5. Azkenik, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, aldi baterako larrialdiko harrera zerbitzuan sartzeko eskabidea onartuz ala baztertuz.

6. Eskaera udal erregistroren batean sartzen denetik, gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da ebazpena. Epe hori eten egingo da eskaera zuzentzeko eskatzen denean, jakinarazpena egiten denetik bertan agindutakoa bete arte igarotzen den denboraz edo, bete ezean, emandako epeaz.

7. Aurreko zatian aipatutako epea igaro eta gero ebazpenik eman ez bada, eskaera atzera bota dela jo ahal izango da -betiere ebazpena emateko betebeharrak bere horretan dirauela-, interesatuak aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izan dezan.

8. Nolanahi izanda ere, onuradunak, zerbitzuan sartu aurretik, I eta II. eranskinetan ageri den Dokumentua izenpetu beharko du, nahitaez. Eskatzaileak dokumentua izenpetu ezean, zerbitzuari uko egiten diola joko da.

#### 5. artikulua. Larrialdiko jardunbidea.

Beharra muturrekoa eta larria denean, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak eskatzailea zerbitzuan berehala sartzeari proposatu ahal izango du, behin Dokumentua izenpetuta, eskabidea behar bezala bideratu ez bada ere. Hori egin bezain laster, lehen azaldutako ohiko jardunbidea abian jarriko da, behin betiko ebazpena emate aldera. Zerbitzuan sartu eta hamabost egun natural iragan baino lehen eman beharko da ebazpen hori.

Larrialdiko jardunbideaz sartu ostean, onuradunak uko egiten badio espedientea hasten edo bideratzen laguntzeari, edo, bideratzen ari dela, egiaztatzen bada ebazpenak ezezkoa izan behar duela, hamar egun natural baino lehen zerbitzua utzi beharko duela jakinaraziko zaio. Epea jakinarazpena jasotzen duenetik hasiko da. Agindutakoa bete ezean, nahitaez utzaraziko zaio, 11. artikuluan jasotako moduan.

#### IV. KAPITULUA. -ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

##### 6. artikulua. Zerbitzua aldi baterako etetea.

1. Espedientea bideratu eta gero, eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzua aldi batez eten ahal izango da, organo eskudunak emandako ebazpena dela medio, aldez aurretik interesatuari entzunaldia eskainita. Onuradunari, eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaio ebazpenaren berri, legeak eskatzen dituen epeetan eta zehazten dituen baldintzak beteta.

##### 2. Hona hemen zerbitzua eteteko arrazoiak:

— Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako langileei edo horiek baimendutako beste pertsoneri etxebizitzara sartzan ez uztea.

— Zerbitzuaren erabilera desegokia edo neurritz gainekoa. Honakoa joko da erabilera desegokitzat: Bizikidetzara arauak ez betetzea eta elkarri errespetua ez gordetzea; inori esatea zein den zerbitzuaren helbidea; kontratuan ageri direnak ez beste pertsona batzuk sartzera edo egotea zerbitzuan; zerbitzuaren edo bizilagunen erkidegoaren instalazioak nahiz bitartekoak modu desegokian erabiltzea; zerbitzuaren jarduna oztopatzea; edonolako istiluak sustatu edo haietan parte hartzea; irainak nahiz biraoak esanez edo beste edozein errespetu faltaz, gainontzeko egoiliarak edo eraikineko bizilagunak mintzea; edozein gauza lapurtzea, eta norberaren segurtasuna nahiz gainontzeko erabiltzaile edo bizilagunena nahita arriskuan jartzea. Honakoa joko da neurritz gaineko erabileratzat: Ura, gasa edo larrialdiko etxebizitzetan nahiz KEZan dagoen beste edozein hornigai gehiegi kontsumitzea.

— Zerbitzuko bi ordainagiri ordaintzen atzeratzea arrazoirik gabe.

3. Ebazpenak ezarritako etete epea amaituta, erabiltzailea berriro sartu ahal izango da zerbitzuan, baina hasieran ezarritako epea ez zaio, horregatik, luzatuko.

4. Zerbitzua etenda dagoen bitartean, osorik ordaindu beharko du zerbitzuaren prezioa, oro har ordaindu beharrik ez duela aitortu ez bazaio behintzat.

5. Zerbitzua eten beharrekotzat joa, erabiltzaileak ebazpenean ezarritako epean utzi beharko du.

##### 7. artikulua. Zerbitzua iraungitzea.

1. Espedientea bideratu eta gero, eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzua iraungitzat jo ahal izango da horretarako aurreikusita zegoen eguna baino lehen, organo eskudunak emandako ebazpena dela medio eta aldez aurretik interesatuari entzunaldia eskainita. Onuradunari eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaio ebazpenaren berri.

##### 2. Hona hemen zerbitzua iraungitzat jotzeko arrazoiak:

— Aurreikusita zegoen epea amaitzea.

— Erabiltzaileak uko egitea.

— Heriotza.

— Zerbitzua ematea eragin zuen beharra desagertzea.

— Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak direla-eta zerbait ezkutatzea edo datu faltsuak ematea.

— Zerbitzuan sartzeko eskatutako betekizunetakoren bat galtzea.

— Zerbitzuaren segimendurako eskatutako dokumentazioa ez ematea.

— Beste erabiltzaileei edo langileei fisiko nahiz psikologikoki erasotzea.

— Zerbitzuko hiru ordainagiri ordaintzen atzeratzea arrazoirik gabe.

— Araudi honetan erabiltzaileei ezartzen zaizkien beste betebeharrak batzuk behin eta berriz ez betetzea.

— Bi egun baino gehiagoz zerbitzua ez erabiltzea, ospitalean egon izana edo ezinbesteko beste arrazoi - batzuk egiaztatu gabe. Egoera berezietan, epe hori luzatu ahal izango da. Horrelakoetan, baina, txosten teknikoa egin beharko da egoera egiaztatzeko.

— Arauak bete ez eta etxebizitzan bizi diren beste pertsona batzuk arriskuan jartzea.

Zerbitzua iraungitzat joa, erabiltzaileak ebazpenean adierazitako epean utzi beharko du.

## V. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

### 8. artikulua. Tasa.

Zerbitzu horien erabiltzaileek dagokion zerga ordenantzan urtero ezartzen den tasa ordaindu beharko dute.

### 9. artikulua. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa.

#### 1. Erabiltzaileak tasaren %100 ordainduko du honelako egoeretan:

— Bere bizikidetzaren unitateari duen kide kopuruagatik legokiokeen Oinarrizko Errentaren %150 baino sarrera handiagoak baditu.

— Zerbitzua behar izatearen arrazoia den ezbehar edo egoerak eragindako gastuak estaltzen dituen asegururik badu, beti ere bizitoki alternatibo bat ematea aseguratutako kontzeptua bada.

— Zerbitzua erabiltzen ari dela, bizitoki gastuak estaltzeko laguntza pribatu nahiz publikorik jasotzen badu. Ez dira kontuan hartuko, ondorio horietarako, Udalak ematen dituen laguntzak.

— Zerbitzua erabiltzeko eskaera beste erakunde batek egin badu, 2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Erabiltzaileak tasaren %50 ordainduko du honelako egoeretan:

— Bere bizikidetzaren unitateari duen kide kopuruagatik legokiokeen Oinarrizko Errentaren %100 baino sarrera handiagoak eta %150 edo txikiagoak baditu.

#### 2. Erabiltzaileak ez du batere tasarik ordainduko honelako egoeretan:

— Bere bizikidetzaren unitateari duen kide kopuruagatik legokiokeen Oinarrizko Errenta besteko sarrerak edo sarrera txikiagoak baditu. Eskabidea egiteko garaian indarrean dagoen Oinarrizko Errenta izango da kontuan.

— Zerbitzua erabiltzailea eraso fisiko, psikiko edo sexualetatik nahiz beste edozein motatako erasotik babesteko ematen bazaio, bere diru sarrerak gorabehera.

3. KEZaren kasuan, inoiz ez zaie tasarik ordaintzeko eskatuko onuradunei. Hala ere, erakunde batek eskatzen badu zerbitzua, 2. artikuluan ezarritakoarekin bat, hari bai eskatuko zaio tasa ordaintzeko, erakunde horrekin lankidetzaren hitzarmena izenpetu eta erakunde bakoitzak bidalitako erabiltzaileek eragindako gastuak elkarrekin konpentsatzen direnean izan ezik.

4. Arrazoi desberdinengatik hartu izan diren pertsona batzuek nahiz pertsona talde batzuek partekatzen badute zerbitzua, haietako bakoitzak lehen ezarritako irizpideen arabera dagokion tasa ordaindu beharko du osorik.

### 10. artikulua. Zerbitzua erabiltzeak dakartzen gastuak.

1. Komunitate gastuak eta lokalak konpondu edo hobetzekoak Udalaren kontura izango dira edo, hala badagokio, zerbitzuak gestionatzeko kontratatutako enpresaren kontura, zerbitzua erabiltzen duten pertsonen

egotz dakizkiekeen arrazoiek eragin ez badituzte behintzat. Halaber, eraikina eduki edo erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa nahiz zerga guztiak ere Udalak ordainduko ditu, zaborrak biltzeagatik tasa barne.

2. Udalaren kontura izango dira, baita ere, elektrizitate, gas eta ur gastuak. Dena dela, Udalak egoki jotako neurriak hartu ahal izango ditu erabiltzaileek hornigai horiek neurritz gain kontsumitu ez ditzaten edo, jada kontsumitu badituzte, eragindako kalteei konponbidea emateko. Horrek ez ditu galaraziko neurritz gaineko erabilerak 6. artikulua arabera izango dituen ondorioak.

3. Aurreko ataletako gastuak udalak ordaintzeaz gain, erabiltzaileak Ordenantza Fiskalak ezarritakoa ordaindu beharko du zerbitzua erabiltzeagatik, eta Araudi honetan ezarritako baldintzetan.

## VI. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO UTZARAZPENA

11. artikulua. Administrazio utzarazpena.

Araudi honetan jasotako arrazoietakoren batengatik nahiz epea amaitu delako, larrialdiko etxebizitza edo KEZ utzi behar dutenek uko egiten badiote uzteari, Udalak behartu ahal izango ditu, administrazio utzarazpenaren bitartez, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiko 120. artikuluan eta hurrengoetan edo hura ordezkatzeko arauetan ezarritako jardunbideko izapideei jarraiki.

## II. TITULUA

### HARRERA GIZARTE LARRIALDIKO ETXEBIZITZETAN

12. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.

1. Gizarte Larrialdiko Etxebizitzetako aldi baterako harrera zerbitzua Udalak aldi baterako larrialdiko harrera zerbitzua emateko erabiltzen dituen etxebizitzetan emango da, bizitoki faltak nahiz pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen duten bizikidetzako arazo larriek eragindako egoera kritikoei erantzuna emate aldera.

2. Kasu berezietan izan ezik, zerbitzu honek bizitokia eman besterik ez du egiten. Beraz, etxebizitza horietan ez da tutoretzarik izaten eta ez dago erabiltzaileak zaintzeko langilerik. Hala ere, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak kasuen segimendua egingo du.

3. Larrialdiko etxebizitza bat aldi berean pertsona bat baino gehiagoren arazoei irtenbidea emateko erabil daiteke, baldin eta etxebizitzaren tamaina eta ekipamendua horretarako egokiak badira. Onuradunak ezin izango du inoiz argudiatu etxebizitza berak bakarrik erabiltzeko eskubidea duenik, bertan daraman denbora dela-eta.

4. Araudi honen ondorioetarako, honako gorabeheren ondorio diren egoerak joko dira bizitoki faltak nahiz bizikidetzako arazo larriek eragindako egoera kritikotzat.

a) Famili harreman jasanezinak, tratu txar fisiko nahiz psikikoak direla-eta. Genero indarkeria jasaten duten emakumeak Emakumei Berehala Kasu Egiteko Zentrora bidaliko dira.

b) Eskumen zibilaren aurrean jarraitutako jardunbideetan emandako epai irmoek agindutako utzarazteak, arrazoa izanik baliabiderik ez izateagatik ordaindu ez izana, jabearen beharra, hondamendizat jo izana edo antzekoak.

c) Udalak harrera zerbitzua behar duen pertsonaren nahiz pertsonen bizitoki den eraikina hondoa jotzeko zorian dagoela jotzea.

d) Famili unitatearen bizitokia den eraikina ez erabiltzeko moduan uzten duen hondamendia, sutea, uholdea nahiz antzeko ezbeharra.

e) Larrialdiko beste egoera batzuk.

13. artikulua. Zein izan daitezkeen onuradun. Betekizunak.

2. artikuluan ezarritako betekizun orokorrak betetzen dituen edozein pertsonak nahiz bizikidetzaren unitatek erabil dezake zerbitzua, beti ere bizitoki faltak nahiz bizikidetzako arazo larriek eragindako egoera kritikoan badago, aurreko artikuluan zehaztutakoaren arabera.

14. artikulua. Gizarte Larrialdiko Etxebizitzaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

1. 3. artikuluan azaldutako eskubide eta betebeharrez gain, Gizarte Larrialdiko Etxebizitzaren erabiltzaileek honako betebeharrak dituzte:

a) Zerbitzuan akatsik edo konpondu nahiz hobetu beharrekorik antzemanaz gero, Gizarte Ongizateko Zuzendaritza jakinaren gainean jartzea. Berariaz galarazten da ezer egitea Zuzendaritzaren baimena izan gabe. Kasu bakar batean konpondu ahal izango da erabiltzailearen ekimenez Larrialdiko etxebizitzaren antzemandako matxura: Jaiegunetan nahiz udal zerbitzuen ordutegiz kanpo izaten diren larrialdiko egoeretan eta, horrelakoetan ere, ahalik eta lasterren jakinaren gainean jarri beharko ditu zerbitzuok.

b) Araudi honetan xedatutakoaren arabera ezarri zaion prezioa ordaintzea.

c) Etxebizitzara sartzekoan, bertan dauden altzari eta tresnen inbentarioa izenpetzea. Egonaldia amaitutakoan, inbentarioa eta etxebizitzaren nahiz altzarien egoera egiaztatuko dira. Zerbait apurtuta badago edo inbentarioko ondasunen bat falta bada, erabiltzaileak hura konpontzeko nahiz berria erosteko gastuak ordaindu beharko ditu. Inbentarioa jasotzen duen dokumentuan bertan aditzera emango dira gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak.

15. artikulua. Sartzeko jardunbidea.

1. Zerbitzuan sartzeko jardunbidea ohikoa izango da, beharra muturrekoa eta larria denean izan ezik. Kasu horietan, larrialdiko jardunbideari jarraituko zaio.

2. Egonaldiak dirauen bitartean bizitoki faltari konponbidea eman dakiogeeela edo helburu hori irits dezakeen esku-hartzeak martxan jar daitezkeela jotzen deneko kasuek lehentasuna izango dute, oro har. Honakoa izango da lehentasun hurrenkera:

a) Bestek egindako eraso nahiz tratu txarra jasotzeko arriskuan dauden pertsonak.

b) Adin txikikoak dituzten bizikidetzaren unitateak.

c) Hondamendi, hondamentzat jotze nahiz pertsona bi edo gehiagok osatutako bizikidetzaren unitateei etxebizitza utzaraztea izan bada bizitokirik ez izateko arrazoia.

3. Plaza nahikorik ez badago, zerbitzuaren osagarri nahiz zabalpen moduan, aldi baterako egonaldia eskaini ahal izango da ostalaritza zentro batean.

4. Ohiko zaintzaileek egindako tratu txarrak jasaten dituzten adinekoak, ahal dela, Gizarte Larrialdiko Etxebizitzaren sartuko dira. Hala ere, adinekoentzat espezializatutako bizitokiren bateko plaza bat aldi baterako okupatzea gestionatu ahal izango da, baldin eta pertsona hori bakarrik bizitzeko gauza ez bada edo berak hala nahi bada, beti ere Gizarte Zerbitzuen iritziz hori bada irtenbiderik egokiena.

16. artikulua. Zerbitzuaren iraupena.

Zerbitzua ematea onartuz gero, organo eskudunak hartzen duen erabakian zerbitzuaren iraupena zehaztu beharko da. Kasuaren ezaugarriak eta zerbitzuaren beharra eragin duen egoera konpontzeko dauden posibilitateak kontuan hartuko dira iraupena erabakitzeko. Nolanahi izanda ere, zerbitzuak ez du hiru hilabete baino gehiago iraungo, erabiltzailea etxebizitzaren sartzen den egunetik. Epea organo eskudunak



hartutako erabakiaren bidez baizik ezin izango da luzatu eta horretarako, gainera, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak aldeko txostena eman beharko du, eskatzaileak beharra egiaztatu eta gero. Organo eskudunak luzapenaren iraupena zehaztu beharko du bere erabakian.

### III. TITULUA

#### TRATU TXARRAK JASOTZEN DITUZTEN

#### EMAKUMEEI BEREHALA KASU EGITEKO BABESPEKO BIZITOKIA (KEZ)

17. artikulua. Zerbitzuaren definizioa.

Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeei berehala kasu egiteko babespeko bizitokia izeneko zerbitzua, genero indarkeria jasateagatik, bakarrik nahiz haien zaintzapean dauden pertsonekin ohiko etxebizitza utzi behar duten emakumeei berehala ostatu ematean datza, Ibarra kokatutako Berehala Kasu Egiteko Zentro batean (KEZ).

18. artikulua. Zein izan daitezkeen KEZaren onuradun. Betekizunak.

Adinez nagusia den nahiz, adin txikikoa izanik, emantzipatua dagoen edozein emakume izan daiteke KEZak ematen duen harrera zerbitzuaren erabiltzaile, bera bakarrik nahiz bere zaintzapean dauden beste pertsonekin batera, baldin eta araudi honetako 2. artikuluan ezarritako betekizun orokorrak betetzen baditu eta genero indarkeriaren biktima bada.

19. artikulua. KEZaren onuradunen eskubide eta betebeharrak.

1. 3. artikuluan ezarritako eskubide eta betekizunez gain, KEZaren erabiltzaileek beste betebeharrak ere badituzte:

a) Ez esatea zentroa non dagoen Gizarte Zerbitzuez kanpoko inori, eta ez ematea haren helbidea Posta Zerbitzuak, paketeria enpresek, bankuek erabiltzeko. Beharrezkoa izanez gero, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak beste helbide bat emango du erabilera horietarako.

b) Zerbitzuan akatsik edo konpondu nahiz hobetu beharrekorik antzemanaz gero, zerbitzuko langileak jakinaren gainean jartzea.

20. artikulua. Sartzeko jardunbidea.

1. KEZ bete gabe egonda, zerbitzuaren arduradunek uste badute arrisku egoera badela, sarrera berehalakoa izango da, baldin eta, zentroaren eta haren funtzionamenduaren berri jakin eta gero, genero indarkeria jasan duen emakumeak hala eskatzen badu.

2. Nolanahi izanda ere, II. Eranskinean ageri den Dokumentua izenpetu beharko du, nahitaez, onuradunak zentroan sartzerakoan. Izenpetu ezean, zerbitzuari uko egiten diola joko da.

3. Plaza nahikorik ez badago, zerbitzuaren osagarri nahiz zabalpen moduan, aldi baterako egonaldia eskaini ahal izango da ostalaritza zentro batean.

21. artikulua. Zerbitzuaren iraupena.

Harrera zerbitzuak, printzipioz, hilabete iraungo du, gehienez, sarrera egunetik. Epe hori segurtasun arrazoiengatik baino ezin izango da luzatu, eraso gehiago gerta daitekeela joz gero. Hala ere, kontu handiz ibili beharko da bitarteko honen bidez irtenbidea ez emateko bizitoki normalizatu baten faltari.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honen maila bereko nahiz txikiagoko arauetan jasotako xedapenik araudi honen kontra badago, nahiz harekin kontraesanean, indargabetuta geratzen da dena delako xedapena.

## AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunen buruan sartuko da indarrean.